

BERRIAK BERRI

Anoetako
aldizkari informatiboa
85 zenb.
2025eko apirila



**Faxismoaren kontra
ausardia eta aliantza
feminista**



Egoitz Luisa Urkola
Anoetako alkatea

Eraberritze energetikoa: Jasangarritasunaren aldeko apustua

36 urte bete dituenean iritsi zaio Anoetako Udaletxeari obra garrantzitsu bat egiteko garaia. Obra honekin udal eraikinak aurpegi berri bat izango du baina horrez gain larrialdi klimatikoari aurre egiteko prestatuko dugu, izan ere eraberritze energetiko honen ondorioz efizienteago eta jasangarriago izango baita bai eraikina eta bai eta bertan ematen den jarduna eta zerbitzua ere.

Energia arloan lehen helburua da udal eraikinak mantentzea eta zerbitzuak eskaintzea, ahalik eta energia gutxien kontsumitzen, eta obra honekin aurrerapausu handia emango dugu. Bigarren helburua, ahalik eta energia berriztagarri gehien sortzeko gaitasuna izatea da eta bide horretan aurtan ere beste proiektu bat abiatzea aurreikusitako dugu.

Euskal Herrian energia kontsumo handien sortzen duten sektoreen artean, industria eta garraioaren atzetik, eraikinak daude, ia energia kontsumoaren %20arekin. Horri aurre egiteko ezinbestekoa da eraikinak eraberritu eta efizienteago bihurtzea eta honetan ere udalak eredugarri izan behar duela argi dugu.

Hala ere, norbaitek pentsa lezake obra hau ez dela beharrezkoa eta are gutxiago lehentasunezkoa, baina udal honek apustu argia eta lehentasunezkoa egiten du bizi dugun larrialdi klimatikoaren faktore garrantzitsuenetakoa den energia kontsumo murriztearen alde. Bai udaletxean, bai eta beste udal eraikinetan ere.

Gainera, udaletxeko eraberritze energetikoaren obrak Europako Next Generation funtsen dirulaguntza garrantzitsu bat du esleitua, baldintza eta epe zehatz batzuei lotua, eta horrek obra hau are eta lehentasunezkoagoa egin du, udalaren zeregina baita herriari eta herritarrei zerbitzu eta baliabideak ahalik eta modu egokienean eskaintzea.

Gaur gaurkoz obra honetan buru belarri ari garen arren, Berriak Berriren ale honetan ikusi ahal izango duzue, proiektu ugari eta askotarikoak ditugu esku artean, bakoitza bere neurrian, guztiak beharrezkoak.

Eraberritze energetikoa



Udaletxearen eraberritze energetikoaren obra

Anoetako Udaletxea eraikina 1989. urtean hasi zen zerbitzua ematen, eta, oro har, bere egoera ona bada ere, urteek aurrera egin ahala hainbat arazo agertu dira. Bestek beste, goiko solairuan itoginak izan dira, isolamendu termiko eskasa dela eta energia-gastuaren igoera nabarmena gertatu da, eta, azpimarratzekoa da, gainera, orain arte berokuntza-sistemak gasolio bidez funtzionatu duela



2021.urtearen amaieran, udal-eraikin guztietan auditoretza energetikoa egin ziren, eta horien bidez Udaletxearen egoera kezkarria agerian geratu zen.

Orokorrean Udal eraikinak ez ditu bizi dugun larrialdi klimatikoari aurre egiteko trantsizio ekologikorako gomendatzen diren baldintzak betetzen.

Anoetako alkate Egoitz Luisak azaldu du martxan jarritako obra eraikin publikoaren iraunkortasuna hobetzeko helburua duela. “Horretarako, inguratzailer termikoa indartzeko jarduerak egingo dira, jatorri fosileko erregaien bidezko sorkuntza-instalazioak iturri berriztagarrietatik eratorritako sorkuntza termikoekin ordezkatu dira, eta haien erregulazioa eta kontrola optimizatuko da. Azkenik, argiztapenaren eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurriak ezarriko dira”.

Obra honetan egingo diren jardueri esker, Anoetako Udaletxea energetikoki jasangarritasun maila gorenean egongo da, eta horrek energia beharra ere asko murriztuko du.

Era berean, eraikinaren fatxada osoan estalki berria jarriko denez, haren itxura erabat eraberrituko da.

Obren jarduera guztiak uztaila amaierara arte luzatzea aurreikusten da. Aurrekontua 719.000 eurokoa da, eta alkateak zehaztu duenez, “udalak egindako kudeaketa ekonomiko egokiari esker 250.000 euroko dirulaguntza jasoko dugu Europako Next Generation funtsetatik obra hau gauzatzeko”.

Hondakinen bilketa



Tolosaldeko Hondakin Mankomunitateak 2024. urteko gaikako bilketaren datuak jakinarazi ditu, eta Anoetak, beste behin, emaitza bikainak lortu ditu: %76,69ko gaikako bilketa eta %23,31ko errefusa. Horri herrian bertan auzokonposta eta autokonpostaren bidez kudeatutako materia organikoaren kopurua gehituz gero, gaikako bilketa %78,47ra igoko litzateke, eta errefusaren ehunekoa %21,58ra jaitsiko litzateke.

Anoetako Udalak eskerrak eman nahi dizkie arduraz hondakinak birziklatzen dituzten guztiei. Datu oso onak lortu arren, Udalak lanean jarraituko du arduraz eta errespetuz jokatzeko ez dutenen erruz zabor ontzien ondoan pilatzen diren hondakinen arazo konpontzeko.




Anoetak gaikako bilketa datu bikainak lortu ditu 2024an

Auzo eta autokonposta proiektua

Gaur egun, 348 etxebizitza daude izena emanda auzokonposta proiektuan, eta 22 etxebizitza, berriz, autokonpostan. Datu pozgarria da herriko etxebizitzetan sortzen den materia organikoaren %40a herrian bertan kudeatzea.

Batetik, hondakin honen bilketa eta garraioa saihesten ditugu, horren ondoriozko emisioak ekiditen eta ingurunean sortzen den eragin positiboa areagotuz. Bestetik, herrian bertan hondakin hau kudeatuz, bere pilaketa masiboa saihesten da.

Udalak garbi du herritarron kontsumo ereduak ondorio batzuk sortzen dituela, eta, beraz, "ardura handiagoz jokatu behar dugu, ondorio hauek jasangarriagoak izan daitezen. Anoetarron kontsumo ereduak sortzen dituen kalteak, kasu honetan hondakinenak, ahal den neurrian guk jasan behar ditugu; ezin ditugu beste herrietako biztanleak gure kontsumoaren ondorioak jasatera zigortu, Zubietako errauskailuarekin gertatzen den bezala" ondorioztatu du.



Elkarrizketa



Altxa Burua:

Teknologiaren erabilera kontzienteago baten alde

ELKARRIZKETA

MAIALEN MUJIKA

Maialen Mujika, Herri Hezitzailea taldeko kidea. Hezkuntza ez-formalaren gaineko lanketa egiten ari da herriko komunitatearekin elkarlanean, gazteen eta familien beharrei erantzuteko asmotan.

Udala Herri Hezitzailea taldearen parte da. Zer da talde hori?

Herriko kide ezberdinez osatutako taldea da, eta hezkuntza ez-formalaren inguruko lanketa desberdinak garatzen ditugu, kezkatzen gaituzten gai anitzak jorratuz.

Herriko zein eragilek hartzen duzue parte bertan?

Eragile gisa, udala eta ikastola daude, baina, horrez gain,



herriko hainbat pertsonak ere parte hartzen dute.

Anoetak Altxa Burua ekimenean parte hartu du. Zein da kanpaina honen helburua?

Herri Hezitzailean elkartzen garen hainbat gurasoren kezka da gure seme-alabak hazten ari direla, eta adin jakin batetik aurrera, ia guztiek smartphone bat izaten dutela. Horrek kezka



sortzen digu, bereziki gazte eta nerabeen artean egiten den erabileragatik. Horregatik, herrian kezka bera duten beste pertsona batzuekin gure ardura partekatu nahi izan dugu, egoera horri ahalik eta modu bateratuenean edo bakoitzak bere ahalmenen arabera modu egokienean aurre egiteko. Horrez gain, gai honen inguruko informazioa eskuratu eta prestakuntza jasotzea ere helburu dugu.

Zer nolako giroa somatzen da Anoetako gazteen artean?

Gure herriko gazteek, beste herri askotan bezala, gehienetan telefonoa eskuan dutela ikus daitezke taldean daudenean. Hala ere, helduok ere ez gaude askoz hobeto. Esango nuke, sarri telefonoa mahai gainean izaten dugula lagunekin gaudenean, edota lagun arteko bazkari eta afarietan. Beraz, gazteentzat eredu garela ere esan daiteke, eta guk geuk ere zer hobetua badugula.

Hainbat bideo zabaldu dira kanpaina honen harira. Batean, neskatala baten izaeraren aldaketa erakusten zen, eta besteak, berriz, gurasoei zuzenduriko mezua zuen.

Gazteek eta helduek ardura bera al dute?

Gure ustez, helduok ardura handiagoa dugu, gazteen eredu baikara. Horrez gain,

guk geuk ere zer ikasia dugu gai honen inguruan, baita gailu hauei ematen diegun erabilerari dagokionez ere.

Zer egin daiteke egunerokotasunean teknologiarekin beharra murrizteko?

Teknologia gure eguneroko bizitzan ezinbesteko bihurtu da, baina, hala ere, ez dugu uneoro behar. Uste dugu bakoitzak bere buruari begiratu eta hausnartu beharko liokeela ea gehiegizko erabilera ematen dion eta murriztu nahiko lukeen, bereziki smartphonearen kasuan. Horretarako, adibidez, aplikazioetan denbora-mugak ezarri ditzakegu, erabilera kontzienteagoa egin eta gure denbora beste jarduera batzuetara bideratzeko.

Kanpainak herrian eraginik izan al du?

Oraindik kanpaina hasi berria da; orain arte bilera ireki bakarra egin dugu, otsailaren 20an, eta herritar batzuk gerturatu ziren. Bertan, elkarrekin partekatu genituen etorkizunerako helburuak, kezkek eta egin nahi ditugun ekintzak. Hurrengo bilera irekia martxoaren 20an izango da, eta parte hartu nahi duen orori zabalik egongo da. Pixkanaka gure bidea egiten hasi nahi dugu, beraz, animatu eta etorri!

Mugiment txartela



Anoetako kiroldegiak Mugiment kirol txartelarekin bat egiten du

**Anoetako Abraham Olano
kiroldegiak Mugiment Kirol
Txartelarekin bat egiten du.
Mugiment kirol txartelaren
helburua da kirola sustatzea
eta herritarrei egindako kirol
eskaintza handitzea.**



Beraz, hemendik aurrera, bazkideek beste udalerrietako kirol-instalazioak erabiltzeko aukera izango dute, inolako kostu gehigarriarik gabe, eta beste herrietako kiroldegietako abonatuak ere Anoetako kiroldegia erabiltzeko aukera izango dute.

Gaur egun, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 181 kirol-instalaziotan (kiroldegi, frontoi eta igerileku) erabil daiteke Mugiment Kirol Txartela.

Mugiment txartela doako txartel birtual bat da, eta Anoetako kiroldegiko bazkide guztiek eskuratu dezakete. Horretarako, Mugiment kirol txartelaren app-a instalatu behar da telefono mugikorrean.

Nola eskuratu daiteke Mugiment txartela?

- Mugiment Kirol Txartela aplikazioa instalatu telefono mugikorrean (Google Play eta App Store-n eskuragarri).
- Erregistratu datu pertsonalak emanaz, email helbidea eta NAN zenbakia, abonatu den udalerraren izena adieraziz. Email bat jasoko duzu konfirmatzeko eta esandako udalerrari bidaliko zaio eskaera.
- Esandako udalerririk balioztatu ondoren eta APPan notifikazioa jaso ostean, Mugiment kirol txartela erabil daiteke.
- Aplikazioan sartu, herri ezberdinetako kirol instalakuntzen zerrenda ireki, erabili nahi duzun instalazioa aukeratu eta datuak ikusi.
- Kirol instalaziora sartzean, “txartel birtuala” eta nortasun agiria erakutsi.
- Instalazioaren langileak sarrera erregistratuko du, erabiltzailearen mugikorrean egiaztatze kodea sartuz eta sarrera emanaz.

Mugiment Kirol Txartela erabiltzeko kiroldegi bakoitzak bere baldintzak eta ordutegiak ezarri ditu. Anoetaren kasuan, kiroldegiko gimnasioa jarri dugu aukeran, astelehenetik ostiralera 09:00-12:30 eta 15:00-17:00. Hortaz, beste herrietatik etortzen direnek ordutegi honetan soilik erabili ahalko dute kiroldegiko gimnasioa.

**ESKURATU MUGIMENT TXARTELA
ETA KIROLA EGITEAREN ONURAZ GOZATU!**

Informazio gehiago:
kiroltxartela.eus/eu



Albiste laburrak



Udalaren ekimen eta jarraikortasunari esker azkenean 18.830,40€ tako **dirulaguntza lortu da Kiroldegan jarri den instalazio fotoboltaiko berria finantzatzeko.**

Hasiera batean Anoetako Udala dirulaguntza honetatik kanpo geratu bazen ere, sortutako aukera aprobetsatzeko eginiko ahaleginari esker, azkenean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Transizio Ekologikoko sailetik aldeko ebazpena eman zaio.

Udalak lanean jarraituko du sortzen diren aukera, onura eta dirulaguntzak kudeatuz herria eta herritarren Zerbitzuak hobetzeko.



Anoetako eta Irurako Udalek elkarlanean bi herrien arteko **oinezko zubian** sare irristagaitza jarri dute. Horretarako beharrezkoa izan da bi udaletako brigadako langileen lana. Anoetako Udalak lanean jarraituko du gune arriskutsuak identifikatzen eta herritarren segurtasuna bermatzeko neurriak hartzen.



Solkorre atzeko paretan eta bere ingurua, Isasti kaleko igoerako zorua eta San Juan auzoko parkeko zorua, konpondu dira, besteak beste.

Azken urteetan erabiltzen ez zen **ikastola sarrerako ate zaharra kendu eta kiroldegi gaineko hesi metalikoa konpondu** ditzuzte udal brigadako langileek.



025eko otsailaren 27an, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) sortu zeneko 49. urteurrena ospatu zen, urteurren hau itxaropen eta erronka berrituekin dator autodeterminazioarako eta independentziarako eskubide besterenezinari alde borrokan jarraitzen duen saharar herriarentzako. Hori dela eta, Anoetako Udalak bat egin zuen eta bat egiten du saharar herriarekin. Horren adierazgarri izan zen Anoetan egindako saharar herriaren aldeko bilketa, non ikastolako komunitateak eskola materiala, konpresak, haurrentzat eta helduentzako pardelak, olioak, arroza, azukrea, hegaluzea eta sardiñak oliotan, pasta eta lekaleak jaso zituzten.



Kulturartekotasuna



Anoeta aldatzen: Euskara, kulturartekotasuna eta komunikazioaren erronkak

Anoeta aldatzen ari da azken urteetan. Biztanleria aldatzen ari da, duela mende erdia baino 1043 biztanle gehiago daude Anoetan. Zentsuaren arabera, 1970 eta 2021 artean biztanle kopurua bikoiztu egin da. Baina, horrez gain, biztanleriaren nolakotasunari erreparatzen bazaio ere, aldaketa nabarmenak sumatuko dira. Batetik, biztanleria gero eta zaharragoa delako eta bestetik, Anoeta osatzen dugun herritarron jatorria asko aldatu delako. Herrian bertan edo gertu jaiotako biztanleriaren jaitziera nabarmena izan da udalerrri euskaldunetan oro har, eta baita Anoetan ere. Hain zuzen ere, gaur egun anoetarren %79 da Gipuzkoan bertan jaioa, eta %1 Araban edo Bizkaian jaioa. Gainerako %9 EAetik kanpo Espainian jaioa da (Nafarroa barne), eta %11 Espainiatik kanpo jaioa.

Aldaketa guzti horiek eragina izan dute herriko euskararen ezagutzan zein erabileran. Hala ere, Anoeta udalerrri euskaldun bat da, %73ko ezagutza zein erabilera dauka. Baina, esan bezala, gero eta anitzagoa da bertako errealitatea. Hortaz, egoera berri horri erantzuteko asmoz sortu zen Euskara eta kulturartekotasuna Anoetan egitasmoa.

Euskara eta kulturartekotasuna. Izenak bi ideia horiek bildu nahi ditu: alde batetik euskara, alegia, euskaraz bitzitzen jarraitzeko asmoa; eta bestetik kulturartekotasuna, alegia, kultura ezberdineko hainbat kide dituen errealitatea aintzat hartzea.

Bi ideia edo errealitate horiek ongi uztartzeko ahalegina da egitasmoa eta hasiera batean eskola-komunitatearen barruko komunikazioan jarri du arreta; batez ere familiekiko eta gurasoekiko komunikazioan: eskolak deitutako guraso batzarrak, mailaz mailako bilerak, gurasoen arteko taldeak...

Horretarako beharrezkoa izan da prozesuaren nondik norakoak adosteko talde eragile bat osatzea. Anoetako Ikastolako zuzendariak eta irakasle batek, udaleko zinegotziak, guraso elkarteko bi ordezkariak, udaleko euskara teknikariak eta UEMAKo teknikariak parte hartzen dute bertan.

EGITASMOAREN AURREKARIAK:

Proiektua ez da hutsetik abiatu: UEMAK duen kezka batetik eta UEMAK berak egin duen gogoeta batetik abiatu da, eta Zaldibiako eskolan egindako esperientzia pilotua izan da aurrekari eta erreferentzia hurbilena, han egin baitzuten lehendabiziko proba.

UEMAK duen kezka, zehazki, honakoa da: herri euskaldunetako eskoletan ikasleen eta familien profila aldatzen ari da, baita hizkuntzari dagokionez ere, eta asko dira, gaur egun, euskararik ez dakiten edo erabiltzen ez duten familietan bizi diren haurrak. Errealitate hori gero eta hedatuagoa da eta eragina dauka hizkuntzaren ezagutzan eta erabileran. Bai haurren artekoan, bai eskola-komunitatearen barruko komunikazioan.

Kulturartekotasuna ezaugarri gero eta nabarmenagoa da, beraz, eta euskaraz bitzitzen jarraitzeko asmoa ere sendoa da. Errealitate berri horri erantzuteko abiatu zen egitasmo hau Zaldibian, HUHEZlren aholkularitzarekin (Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea); ondoren UEMAK beste hainbat herritara zabaldu du egitasmoa, tartean Anoetara.

EGITASMOAREN HELBURUAK:

Egitasmoaren helburuak, labur azalduta, honakoak dira:

- Euskaraz bizitzea: alegia, orain arte bezala, bizitza euskaraz normal egiten jarraitzea.
- Familia guztiakin komunikazio eta giro abegikorra bermatzea. Baita euskara ez dakitenekin ere.
- Euskalduntasunetik kulturartekotasuna eraikitzea.

Horiek lortzeko egingo dira egitasmoak dakartzan urrats praktikoak. Izan ere, gogoetaz gainera, egitasmo honetan urrats praktikoak egiten ari dira.

EGITASMOAREN OINARRIAN DAUDEN IDEIAK ETA GOGOETA:

Esan bezala, urrats zehatz eta praktiko batzuk ematen ari dira proiektuaren barruan, baina urrats horiek egiteko badaude arrazoi batzuk eta bulkada bat. Horiek dira ekimenaren marko teorikoa osatzen dutenak, "oinarri filosofikoa" nolabait esateagatik, eta horiek dira hasiera-hasieratik talde eragileari, ikastolako irakasleei, gurasoei eta herritarrei azaldu zaizkienak.

Honatx, labur azalduta, marko teoriko hori osatzen duten ideietako batzuk. Interesgarriak dira herrira duela gutxi etorri diren bizilagun berrientzat, baina interesgarriak dira, halaber, lehendik ere hemen bizi zen edonorentzat.

- **Euskara hizkuntza minorizatua da eta normalizazio prozesuan dago:** udalerrri euskaldunetan euskara da hizkuntza nagusia, eta ofiziala da, gaztelaniarekin batera, baina hizkuntza minorizatua da eta ez dago normalizatuta. Hizkuntza bizia eta osasuntsua da euskara, baina gabeziak eta hutsuneak ere ugariak dira, eta hizkuntza osoki normalizatua izateko bide handi bat falta zaio oraindik. Bultzada eta babes handia behar du, oraindik ere.

- **Euskararen etorkizuna:** euskararen etorkizuna ez dago bermatuta. Euskarak, oro har, egoera ahul samarrean jarraitzen du, eta etorkizunean hizkuntza osasuntsua izanen ote den ez dauka ziurtatuta.

- **Gure herria udalerrri euskalduna da:** udalerrri euskaldunak euskararen bizitasun eta erabilera handiko guneak dira, eta ezinbestekoak dira euskararentzat. Gurea horietako bat da eta horrek, nolabait esateko, ardura bat dakarkio herriari.

- **Gure herrian bizilagun berriak:** gure herritik bertatik beste toki askotara jendea mugitu izan den bezala, gure herrira ere bizilagun berriak etorri dira eta etortzen ari dira. Bizilagun berri horiek, normalean, ez dakite euskaraz, eta horrek eraman gaitu bide berriak bilatzera herrian euskaraz bizitzen jarraitzeko eta,aldi berean, denon arteko komunikazioa bermatzeko. Eta komunikazioari begira konponbidea ez da denok gaztelaniaz egitea, denok (edo gehienok) badakigulako. Gure herria udalerrri euskalduna da eta izaten jarraitu nahi du, eta horretarako euskara erabiltzen jarraitu behar du. Ongi ulertu behar da, horrenbestez, zuzenean gaztelaniara ez jotzea ez dela "errespetu edo heziketa falta".

- **Zaldibiako esperientziatik etorritako gogoeta bat edo beste:** egitasmoak aurrera egin dezan komeni da konplizitateak ehuntzea, elkar ulertzea... Etorri berrientzat euskara ikastea ahalegin handia da, eta, era berean, hainbat unetan euskaldunarentzat ere gaztelaniaz aritzea esfortzu handia da. Kultura ezberdinetako kideekiko jarrera abegikorrari eutsiz euskaraz bizitzen jarraitzeko apustuari eutsi nahi bazaio, uneren batean konpromiso batzuk hartu beharko dira.

- **Garrantzitsua da umeek etxeko hizkuntza ongi ikastea eta erabiltzea.**

- Umeen garapen kognitiborako garrantzitsua da eta, horretaz gain, bigarren hizkuntzak ikasteo oinarria da.
- Haurren identitatearen zati bat da.
- Familiarentzat eta komunitate osoarentzat baliabide bat da.

EGITASMOAREN ALDERDI PRAKTIKOA

Esan bezala, egitasmo honek alderdi praktikoa dauka, eta eskola-komunitatean hizkuntzak kudeatzeko irtenbide praktikoa bilatzen hasiak dira: gurasoekin egiten diren bileretarako; aldi bereko itzulpena euskara ulertzen ez duten familientzako; gurasoen ordezkarien bileretarako...

Lantzen ari diren edo landuko diren irtenbide praktikoa guztiak xehe-xehe azaltzen hasi gabe, horietako hiru aipatuko ditugu, adibide gisa:

- **Bileretan hizkuntzen erabilera kudeatzeko sistema, Telegram aplikazioaren bitartez:** Elebidunak eta erdaldunak elkartzen diren bileretan modu ezberdinak erabili izan dira hizkuntzaren erabilera kudeatzeko: dena bi hizkuntzetan egin; euskaraz egin eta ondoren laburpen bat gaztelaniaz; euskaraz egin eta zenbait xuxurlari jarri erdaldunen ondoan haiei itzulpena egiteko...

Egitasmo honen barruan beste modu bat hautatu da, denontzat aurrerapausoa delakoan. Hauxe da: norberaren telefonoan Telegram aplikazioa deskargatuta (doan eskuratzen da

eta Whatsapp-ek bezalatsu funtzionatzen du), batzar edo bilerarako kanal bat sortzen da, eta esandakoa ulertzeko itzulpena behar duenak aurikularrak jantzi eta kanal horretan sartu, ez du besterik egin behar. Bileran esaten ari dena gaztelaniaz entzungo du aurikularretatik, bertan dagoen itzultzaile baten ahotik. Erraza, praktikoa eta eraginkorra da sistema. Nahikoa da pertsona bakar bat itzultzaile lana egiteko, eta euskaraz ez dakienak egin beharko duen bakarra aurikularrak jantzi eta kanalean sartzea da.

- **Bi faseko bilerak:** Ikasturte hasierako gela bileretan bi fasetako eredu auzari da. Informazioa jasotzeko bilera bat izatetik gurasoen arteko harremanak sustatzen dituen bilera bat izatera pasatuz. Beharrezko informazio orokorra era laburrean eman ostean talde dinamika bat planteatzen dute irakasleek, eta honek ordura arte elkar ezagutzen ez zuten gurasoen artean zubiak eraikitzea ahalbidetu du.
- **Herriko albisteen berri ematea Telegram aplikazioaren bitartez:** Anoetako Udala ere herriko albisteen berri ematen hasi da Telegram aplikazioaren bitartez. Telegram kontu bat sortzeak aukera eskainiko dio euskara ez dakienari albisteak norbere hizkuntzara itzultzeko.

Hiru ekintza edo proposamen horiek, aipatutako gogoeta eta "filosofia" horrekin lotuta daude, eta horren guztiaren ondorio praktikoa dira. Urrats jakin batzuk dira, gehiago ere emango dira, eta aurrera joan ahala ikusiko da hobetzeko alderdirik badagoen, zer eta nola hobetu daitekeen.

Ahalegin partekatu honen ondorioz, pixkanaka, egitasmoak ezarritako helburuetara hurbiltzea eta denontzat irabazi bat lortzea espero da.



“ABIZENA ERE EUSKARAZ” KANPAINA ABIATU DA TOLOSALDEAN

- Zein hizkuntzatan dituzu idatzita abizenak nortasun agirian?
- Ez al duzu inoiz pentsatu euskaraz idaztea zure abizenak?
- Nola eman nahi dizkiezu seme-alabei zure abizenak?

Galdera horiek egin zitzaizkien 2008an Anoetako herritarrei, “Apelliduak abizendu!” kanpaina abiatu zenean lehen aldiz, eta garai hartan abizenak euskal grafiara aldatu zituzten bi herritarri galdetu zaie ea zerk bultzatu zituen aldaketa hura egitera.

MARIJO ITURRIOTZ URKIDIZAR

Abizenak euskal grafiara aldatu nituen euskalduna naizelako eta izena ere hala idatzita nahi nuelako. Garai batean behartu egiten gintuzten gure abizenak erdarazko grafian jartzera, baina orain gure esku dago hori, gure erabakia da. Euskaldun izana baldin badugu, izena ere hala beharko genuke.



AITOR GURRUTXAGA ARANZASTI



Beti idatzi izan dut nire abizena euskaraz; gazteleraz idazteak edo nire abizena hala idatzita ikusteak moles-tatu egiten zidan. Duela urte batzuk Anoetako Udalak egindako kanpaina batean hauek euskaratzeko erabakia hartu nuen. Prozesua uste baino errazagoa izan zen, eta udalak prestatu-tako paperekin nortasun agiri berria egin nuen. Aldaketa hau eginda, nire semeak ere euskaraz erregistratzeko aukera izan dut.

Oraingoa, Tolosaldea osoan egingo da kanpaina. Oso erraz alda daitezke abizenak euskal grafiara. Bake-epaitegian hitzordua eskatu behar da ezkerra.a@justizia.eus/943246538) eta agiri hauek eraman behar dira:

- Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Jaiotza ziurtagiria. Erregistratuta zauden herriko udaletxean edo epaitegian eskatu behar da.
- Errolda agiria. Udaletxean eskatzen da. Baita online ere.
- Familia liburua (hala badagokio).

ZENA ETA ZANA!

Kultur ondarea



Anoetan, ohitura zaharrak eta kultur ekimenak indartsu mantentzen dira urtetik urtera, herritarren konpromisoari eta elkarteetan lanari esker. Santa Ageda bezpera, kaldereroen kalejira eta Basagaingo aztarnategia dira komunitatearen nortasuna islatzen duten hiru ekimen adierazgarri.

Anoetako kultur ondarea eta ohiturak bizirik

Santa Ageda: Usadioaren indarra

Urtero bezala, Abesbatza Kukua Elkarteak herritarrak deitu zituen Santa Ageda bezperan kantatzera. 15:30ean gaztelekuan bildu eta gero, parte-hartzaileek baserriz baserri egin zuten ibilbidea, tradizioari eutsiz eta giro paregabea sortuz. Ondoren, herriko kaleetan zehar jarraitu zuten abesten, Anoetako txoko guztiak melodia tradizionalekin betez. Ekimen honek herri nortasuna sendotzeaz gain, belaunaldien arteko lotura estutzen du, gazteek zein helduek eskuz esku parte hartzen baitute.





Kaldereroak: Inauterien hotsak

Aurten, Iruratik Anoetara abiatu ziren kaldereroak, zartaginen eta katea-hotsek lagunduta. Kalejira animatuak herriko kaleak hartu zituen, inauterien etorrera iragarri eta herritarren artean festa giroa piztuz. Behin Anoetara iritsita, hainbat puntu estrategikotan geldialdiak egin zituzten, bertan kantatzeko. Ekitaldiari amaiera emateko, parte-hartzaileek mokadutxo bat partekatu zuten plazan, umore onez eta elkartasun giroan.



Basagain: Historiaz betetako herrixka

1994.urtean, Koldo Oria herritarrak Basagaingo Burdin Aroko herrixkaren aztarnak aurkitu zituen, eta ordutik, Aranzadi Zientzia Elkarteak indusketa lanak egiten ditu bertan. Xabier Peñalver arkeologoaren zuzendaritzapean, boluntario talde batek urtero hiru asteko lanaldiak egiten ditu irailean, iraganaren aztarnak azaleratzeko.

Basagaingo aztarnategiari buruzko azken memoriak eta argitalpenak Anoetako Udalaren webgunean kontsulta daitezke (www.anoeta.eus, argitalpenak atalean). Gainera, ibilbide birtual bat prestatzen ari dira, edonor bertan murgildu ahal izateko. Aurten, indusketa-lanen 30. urteurrena dela eta, Xabier Peñalver arkeologoak hitzaldi bat eskainiko du irailean, azken hiru hamarkadetako aurkikuntzen berri emateko. Informazio osagarria jasotzeko, udalaren webgunea eta iragarki-taulak kontsultatzea gomendatzen da.



Martxoak 8

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna Anoetan ere aldarrikapen eguna izan zen. Goizeko lehen ekintza kafe tertulia izan zen, eta 10 lagun elkartu ziren bertan. Gai desberdinak jorratu ziren; aurtengo leloari jarraiki, gaur egun faxismoak, eskuinak eta ideologia horiek zabaltzen dituzten pentsamenduak gero eta indar gehiago hartzen ari direla azpimarratu zen.



Era berean, gazteen artean feminismoaren aurkakotasuna edota honekiko erresistentzia areagotzen ari dela komentatu zen. Ikuspegi eta esperientziak partekatu, eta arazoaren larritasuna nabarmendu zen. Horren adibide Anoetan egindako lehen diagnostikoan, herriko jaietan etxera laguntzeko taldeak antolatzeko beharra azaldu zuten gaztelekuko erabiltzaileek. Historia ahazten duen herriak, hura errepikatzeko arriskua duenez, ahalduntzearen garrantziaz aritu ziren kafe tertulian.

Kafe tertulierekin amaitu ostean, Anoeta eta Irura batzen dituen zubira joan ziren, eta bi herritako herritarrak bertan elkartu ziren Aiztondoko klasikan aldarrikapenak egiteko eta mezua ozen zabaltzeko. Zubiaren inguruan, herritarren parte-hartzea nabarmena izan zen, eta hortik aurrera, poteo labur bat egin ondoren, Kuku Elkartara joan ziren 22 emakume bazkaltzera. Festa giroa nagusi izan zen, emakume anitzak elkartu ziren bertan. Bazkariko tertulia eta giroa bikainak izan ziren, eta otorduaren amaiera bingo batekin eman zioten.

Aliantza feministak izan ziren hizpide egunean, eta bazkaria amaitu ostean, trenara hartu zuten elkarrekin Tolosara joateko, bertan batasuna erakusteko eta indarrak batzeko, eskualdeko deialdian.

Anoetako Matraka talde feministak balorazio positiboa egin du, egun osoan zehar kalitatezko ekintzak eta giro bikaina izan zirelako. Era berean, azpimarratu dute guztiok elkarrekin aliantza feministak sortuta, faxismoari eta patriarkatuari aurre egiteko borrokatu beharra dagoela.

